

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEZIÑANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren kontribuzio errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko jartzea 2019ko bigarren seihiilekoko ordainagiriak

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2019ko bigarren seihiilekoaren kontribuzio errolda osaturik eta 2020ko urtarrilaren 30ean onetsirik, errolda jendaurrean jarrita egongo da hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 98. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epeen barruan.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 10an hasi eta apirilaren 15ean bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2020ko martxoaren 12an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Internet bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Leziñana, 2020ko urtarrilaren 30a

Errejidore-lehendakaria

JESÚS MARÍA DÍAZ DE LEZANA FERNÁNDEZ DE GAMARRA